

QUE NO TE QUITEN TU CONVENIO

*Hemen lan,  
hemen negoziatu!*

# Euskal esparruan negoziatzea galarazten da hitzarmen estataletatik

↓ Madrid ↓  
(Via Reforma)



**#HemenErabaki**

EUSKAL SINDIKATUA

QUE NO TE QUITEN TU CONVENIO

*Hemen lan,  
hemen negoziatu!*

## Estatalizazioa

funtsezko mekanismoa da euskal negoziazio kolektiboa eta Estatuko beste eremu batzuetakoa erabat pobretzeko.

QUE NO TE QUITEN TU CONVENIO

*Hemen lan,  
hemen negoziatu!*

**CCOOK, UGTk eta CEOEk  
probintzia mailako  
sektore-negoziario kolektiboa  
deuseztatu edo hustu egingo dutela  
erabaki dute**

id ↓  
(Via Reforma)

# Estatalizazioaren adibideak

- 1) Ostalaritza
- 2) Sukaldaritza
- 3) Lorezaintza
- 4) Ile apaindegiak
- 5) Drogeria, lurrindegia eta belar dendak
- 6) Estatuko Merkataritzako Akordio Markoa
- 7) Metalgintza
- 8) Kontserbagintza
- 9) Eraikuntza
- 10) Pertsona dependenteentzako Arreta Zerbitzuak



# 1. Ostalaritza

Ostalaritza sektorerako Lan-Akordioak (ALEH) beretzat gordetzen ditu hainbat negoziazio-gai, besteak beste:

- Subrogazio laborala
- **Negoiazio-eremu berriak irekitzeko aukera galarazten du** estatuko batzorde parekideak baimenik eman ezean.

## 2. Sukaldaritza

Madriilen sinatutako Sukaldaritza Hitzarmenak berariaz **galarazten du beste edozein eremutako negoziazioa**, estatuko batzorde parekideak baimena eman ezean.

Adibidez, **Bizkaian negoziatzeko aukerari betoa jartzen zaio**, akordio hura sinatu duten sindikatuek bertoko Ostalaritza Hitzarmenean **ordezkaritzaren %18,74 besterik ez badute ere**.

## 2. Sukaldaritza

Akordio honek kolektibitateetako langileentzat **soldata %50 murriztea eta lanaldia urtean 50 orduz luzatzea** suposatzen du.

Eusko Jaurlaritzak bere lizitazioetan hitzarmen negargarri hau inposatzen du bere azpikontratetan aplikatzeko.

### 3. Lorezaintza

Lorezaintzako hitzarmenak dioenez, estatu eremuan negoziatutako gaiak **ezin dira beste esparruetan negoziatu.**

### 4. Ile apaindegiak

Estatuko akordioak beste eremu txikiagoetan arautu ezin den hainbat gai gordetzen du beretzat:

- Aldi baterako ezintasunen osagarriak
- Diziplina-erregimena, etab.

Gainera, exijitzen du eremu berriak irekitzeko estatuko batzorde parekideari jakinaraztea.



# 5. Drogeria, lurrindegia eta belar dendak

Hitzarmenaren negoziazio kolektiborako honako egitura sortzen da:

- 1) Estatuko Hitzarmena
- 2) Autonomi-erkidegokoa
- 3) Enpresakoa

Beraz, **hitzarmen probintzialak desagertu egiten dira**. Ondorioz, hauetan jasotako **antzinatasun osagarria** ez da sortzen eta **soldata-eskala bikoitzei** bide ematen zaie.



# 6. Estatuko Merkataritzako Akordio Markoa

Estatu eremuan, iraunaldia bukatu aurretik hitzaurrea aldatu nahi zen:

- 1) Eremu probintzialak ez aintzatesteko
- 2) Gai batzuk erreserbatzeko
- 3) Egitura-osagaiak ezartzeko

**Euskal Autonomi-Erkidegorako Merkataritzako Akordio Markoa indargabetzarren.**

ELAk sinatutako Akordio Marko honen xedea zen EAEko merkataritzako hitzarmen guztiek estatukoekiko lehentasuna izatea.

# 6. Estatuko Merkataritzako Akordio Markoa

CECOBIrekin Bizkaiko Ehungintza Merkataritzako Hitzarmena (ELAk %80a du) eta euskal Akordio Marko Sektoriala sinatu ostean Estatuko Merkataritzako Akordio Markoaren mahaian **CCOOko ordezkari batek** esan zigun:

***“badakizue zertara etorri garen: euskal Akordio Marko Sektoriala akabatzerá”***

Oraingoz ez dute lortu, Estatuko patronal batzuk ere, CECOBI haien artea, aurka daudelako.



# 7. Metalgintza

CCOOK, UGTk eta Confemetal patronalak Hitzarmen estatala adostu dute.

Estatu mailan **soldatak bateratzeko asmoa** adierazten dute.

**Sektore honetan** probintzia guztiek beren errealitatera egokitutako lan-hitzarmen bat dute; hau da, **ez dago araugintza hutsunerik**.

Gainera, agerikoa da, esaterako, Gipuzkoak eta bere metalgintza industriak ez duela zerikusirik estatuko beste lurralde batzuekin.

↓ Madrid ↓  
(Via Reforma)

# 7. Metalgintza

**Soldatak bateratzea** Euskal Herriko metalgile guztientzako **atzerakada oso larria** izango litzateke. Hitzarmen berrian, gainera, **estatu-eremuaren nagusitasuna ezartzen da** eta esaten da bere batzorde parekideak beste eremuetako negoziazioan esku hartu ahal izango duela, ordezkaritza sindikala edozein dela ere.

Akordioaren funtsak formazio-eredu bat blindatzeko asmoa du, helburu bakarrarekin: **sinatzen duten organizazioei finantzazioa ematea.**



# 8. Kontserbagintza

Madrilgo akordio baten bidez **Bizkaiko Kontserbagintza Sektoreko hitzarmena indargabetu** egiten dela; bertan mugagabeko ultraaktibitatea zegoen araututa.

CCOOK, UGTk eta patronalak erabaki dute ez dagoela estatukoa ez den beste eremu sektorialik.

# 9. Eraikuntza

CCOOk eta UGTk 2012an sinatu zuten hitzarmena izan zen lehena Zapateroren erreformak eskaintzen zituen zentralizazio aukerak bereganatzen.

Testu honetan ezartzen da **gaien %90a estatu eremuan soilik** negoziatu daitezkeela.

Hitzarmen hau aitazindari da ere **funts publikoak sinatzaileen esku** jartzeari dagokionez, Eraikuntzako Txartel Profesionalaren bidez.



# 10. Pertsona dependenteentzako Arreta

Pertsona dependenteentzako Arreta Zerbitzuetako eta autonomia pertsonalaren garapenerako Hitzarmen Marko estatala adinekoan egoitza, eguneko zentro, gaueko zentro, etxebizitza tutelatu, etxez etxeko zerbitzu eta teleasistentziako langileei aplikatzen zaie.

Akordio honek ezartzen du **negoziatzeko lehentasunezko eremua estatua** dela.

Negoiazio-eremu berriak irekitzeko estatuko batzorde parekidearen baimena exijitzen du.



QUE NO TE QUITEN TU CONVENIO

Gehiengo demokratikoa dugunoi  
lan-baldintzak modu eraginkorrean arautzeko  
aukera galarazten zaigu.

**Askatasun sindikala indartzeko,  
demokrazian sakontzeko,  
langileen lan- eta bizi-baldintzak hobetzeko**

**#HemenErabaki**



# QUE NO TE QUITEN TU CONVENIO

*Hemen lan,  
hemen negoziatu!*

## LAUKOTE Garraioak



↓ Madrid ↓  
(Via Reforma)

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA